



**2 AURREKONTUAK**  
**Onartuta 2015eko**  
**aurrekontuak**

Bildu, EAJ eta LOHP eta adskribatu gabeko Marisa Zubiriren aldeko bozka jaso zituen 2015eko aurrekontu proiektuak ostiraleko ezohiko udalbatzarrean; kontra PP eta PSE-EE azaldu ziren. Horrekin batera, kreditu aldaketa batzuk ere onartu zituzten. Denera 21.700.000 euroko aurrekontua izango du udalak aurtan. Inbertsioetarako 2.038.000 euro izango dira. Kaleak asfaltatzeko, Sasoea urbanizatze eta Zumaburuko eskola konpontzeko onartu da diru gehien.

**3 ELKARRIZKETA**  
**Pablo Barrio**  
**EHBilduko**  
**alkategaia**

Pablo Barrio alkatea da berri-  
ro ere EHBilduren alkategaia.  
Lau urte Udala kudeatzen  
egon ostean, Gobernuari eus-  
tea espero du. Legaldi hone-  
ta irakurketa egin eta arlo  
ezberdinetan proposamen  
berriak egiten ditu hurrengo  
legealdirako. "herriartekin  
harremana indartzen eta  
zabaltzen, gardantsunean  
eta herriaren erabakimenean  
eragin behar dugu", adierazi  
du elkarrizketan.



Larunbat eguerdian antzerki eta dantza festak eztanda egingo du herrian Kukuka Antzerki eta Dantza eskolaren eskutik. 13. Antzerki eta dantza asteari hasiera ederra emango zaio ohiko desfilearekin eta Okendo plazan egingo den ekitaldi txikiarekin. Bestalde, maiatzaren 25etik 31ra eta ekainaren 8tik 14ra talde ezberdinak ikusteko aukera izango da Manuel Lekuonan.

Ostegunean, Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako kideak, Pablo Barrio alkatea, ikaste-txeatiko eta Kultura saileko ordezkariekin batera, 13. Antzerki eta dantza asteko egitaraua aurkeztu zuten.

Maider Oiarzabal dantza arloko arduradunak eta Kontxu lartza antzerki ataleko ordezkariak 13. edizio honetako egitarauaren berri eman zuten.

Antzerki eta dantza aste honek maiatzaren 25etik 31ra eta ekainaren 8tik 14ra iraungo du. "Ekaineko lehen astean Zabaleta auzoko jaiek daude eta Eskola honetako sortzaileak bertakoak direnez, erespetzez, aste horretan ete-nalditxo egingo dugu eta bertan izango gara gure lanak erakusten", azaldu zuten Oiarzabalek.

**Desfilia**  
Hala ere, larunbatean maiatzaren 23an Antzerki eta Dantza astearen aurkezpena



Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako kideak, Pablo Barrio alkatea, Kultura sail eta ikastetxeetako ordezkariak agerraldian.

egingo da. Aurreko urtetan legez desfile erraldoiak hartuko ditu erdiguneko kaleak. Baina Maidere Oiarzabalek aipamarratu zuenez, lehenengo goizean 11:30etik aurrera izango da.

Gainera, formatu berrien bila desfilea taldeago iragarri dute. Kultur etxe parean hasiko da, Geltoki kaleetik Hipodromo etorbidera egingo du eta errotondan Kale Nagusi barenra joango da desfile koloretua Okendora arte.

Izan ere, aurtien Okendo plaza izango baita "muina". Bertan dantza eta antzerki talde ezberdinen aurkezpena egin eta bakoitzak minutu bateko erakustaldia egingo du. Ostean, guztiak batera Kukuka Antzerki eta dantza eskolako ereserkia dantzatzeko dute.

**Saioak**  
Antzerki lan eta dantzez gozatzeko astelehenera arte itxaron beharko dute herriko ikasleek.

Saio hauek goizez egingo dira eta aurtan, gainera, "Institukito ikasleak ere etorriko dira ikustera," jakinarazi zuten Kontxulariek.

Guraso eta senideek berriz arratsaldeetako saioak izango dituzte antzerkiarekin gozatzeko. Guztiak 19:00etan izango dira, lau antzerki saio izan ezik.

Berrikuntza bezala, ostegun gauetan, 21:00etan gazteen taldeak antzerkia eskainiko du. "Iaz helduen taldea izan zen saio horretan eta arrakasta izan zuen", aipatu zuten Kontxulariek.

Horren ondorioz, arratsaldetan 18:00etan izango da LH1 eta LH2koen antzerki saioa.

Bestalde, helduen taldeetako batek larunbata maiatzak 30, 20:00etan eskainiko du lana eta besteak ekainaren 12an, ostirala, 22:00etan.

Dantzez gozatzeko ekainaren 14ra arte, igandera, itxaron beharko da. Orduan

izango baita Dantza B. Eguna. 12:00etan, Euskal dantza eta euskal sorkuntzako ordubeteko saioa izango da eta 19:00etan dantza garakidearen banda izango da.

Maidere Oiarzabalek aipatu zuenez, "Euskal Sorkuntza talde gehiago sortu dira eta interesa dagoela ikusten da".

**Eredua**

Pablo Barrio alkateak horrelako ekintzak haurren hezkuntzarako garrantzitsuak direla aipatu zuen, "sozializatze modua, besteekin lan egiteko, jende aurrean egoteko... Bideak ematen dira".

Eta herrietatik eta beste hainbat gauzengatik Lasarte-Orian ereduatzat dituztela aipamarratu zuen.

Honetaz gain, Udalaren funtzioa taldeei aukerak eman eta baliabideak jendearen esku jartzea dela adierazi zuen. "Herria herriak egiten du".



**LASARTE-ORIA**  
**EKINEZ EGINA**  
**HECHOS**  
**PARA LASARTE-ORIA**

ENAHERRIA/NOTA



HEZKUNTZA EUSKADI-EREA

## AURREKONTUAK

## 2015eko aurrekontuak onartu ditu udalbatzarrak

Guztira 2.038.000 euro zuzenduko ditu aurten Udalak inbertsioetara

Bildu, EAJ, LOHP eta adskribatu gabeko Marisa Zubiriren aldeko bozkek jaso zituen 2015eko aurrekontu proiektuak ostiraleko ezohiko udalbatzarrean; kontra PP eta PSE-EE azaldu ziren. Horrekin batera, kreditu aldaketa batzuk ere onartu zituzten. Denera 21.700.000 euroko aurrekontua izango du udalak aurten.

## TXINTXARRI

**G**uztira aurten Udalak 2.038.000 euro zuzenduko ditu inbertsioetara. Diru gehien, 474.000 euro, bide publikoak asfaltatzeko erabiliko du eta Sasoetako lokalentzako espazio librea urbanizatzeari berriz, 375.000 euro eskainiko dizkio. Zuma-buruko eskolako fatxada eta teilatua konpontzera 330.000 euro bideratuko ditu udalak ostiraleko ezohiko udalbatzarrean onetsi behazela.

## Bozketa udalbatzarrean

Onartua izan aurretik ordea, 2015 urteko aurrekontu proiektu orokorren onepnari bi osoko emendakin aurkeztu zitzaizkion. Bata PP alderdiak eta bestea PSE-EEK proposatutakoa. Biak bota zituen atzera ezohiko udalbatzarrak Bildu, EAJ eta LOHP eta Zubiriren bozkek.

"Zazpi hilabeteko atzerapenarekin aurkeztu dituzte aurrekontuak. Inon ez da halakorik gertatzen, legegaldia amaitzek dagoela ezin dira aurrekontuak onartu; hori, mamian sartu gabe. Horregatik aurkeztu diogu osoko emandakina proiektuari", salatu zuen Vanessa Velez PPko zinegotziak.

"Berritoki ikusten da Bilduren udal gobernuak ez duela Lasarte-Oriarentzat inolako planifikaziorik. Hauteskundeak izan baino bederatzi egun lehenago aurrekontuak bozkatzen ari gara, korrikita eta presaka, alkatetza aldaketa gerta daitekeen bitartean. Horregatik aurkeztu diogu osoko zuzenketa, horregatik

eskatzen dugu testua bueltan itzultzea, gobernu berriak erredaktatu dezan", adierazi zuen Jesus Zaballos PSEko oposizio buruak.

Behin bi osoko emendakinak atzera botata, udal gobernuak aurkeztutako aurrekontu proiektu orokorra bozkatzeko uea iritsi zen. Eta honek bai, udalbatzarraren babesa jaso zuen Bildu, EAJ, LOHP eta Marisa Zubiri adskribatu gabeko zinegotziaren aldeko bozkek. Kontra, esan bezala, PSE eta PP agertu ziren.

## Erreakzioak

EAJren izenean Estixu Alkorkat adierazi zuen "ardurats" jokatzeko saiakera egin dutela, eta "urte urte" aurrekontuak babestu dituztela, "herriarren interesak" ardatz: "Egia da, inoizko aurrekontu berantiarrenak izan dira lehenengoz alkatetza bidez bideratu baitira eta hori ez zaigu ongi iruditzen, baina azkeneko akordioak bilatzea lortu dugu baldintza batzuk jarrita. Aurrekontuak legezkoak izatea ezarritakoaren legea betez, gastu korrontea murriztea edota Sasoetako etxabeentzat, enplegu sustapenerantz, asfaltatzeentzat eta Mercero aretoarentzat partida batzuk bideratzea, besteak beste. Bai orain eta bai legegaldi guztietan herritarrentzat onena dena defendatu dugu".

Jesus Zaballosek PSEren jarrera azaldu zuen: "Kontra bozka eman dugu egin duzuna politikoki ez zaigulako etikoa iruditzen. Ezin da azken uean horrela ibili. Gainera, langabezia tasari



Amaitu da legegintzaldia. Lau urteetako ibilira gogoratzeke, familia argazkia atzera zuten alderdi guztiek amaieran.

aurre egiteko partidak %46 eta %24 bitartean jaitzi dituzte. Komertzioaren aldeko laguntzak, urbanismoa, kaleak asfaltatzea... Denera luzez sozialistok egiten ari guzten eskariak ziren. Eta orain, zuten programan sartu dituzte. Demagogia gutxiago", aurreratu zion Bilduri.

Bide beretik, PPren izenean Velezek salatu zuen "hiru ateko" negoziaketak izan dela EAJ, Bildu eta LOHPak egin dutena, "gaintzeko alderdiak baztertu egin gaituzte".

Azkenik, Gorka Lizarraga zinegotziak hartu zuen hitza Bilduren izenean. Lasarte-Oriarrak "zorionekoak" direla esan zuen udalean 21.700.000 euroko aurrekontua onartu delako: "Ez dira garai errazak izan, gogoratu behar da gobernuan gaundek ez gaudela gehiengoan, adostasunak bilatu behar izan ditugula, jakina, adostasunak nahi izan dituztenekin. Herriarren interesak alderdien gainetik jarri ditugu urtero herritarren hobeharrez. Zailtasunak izan ditugu programa guztia bere horretan sartzeko. Krisi egoera bizitzen

ari gara eta hala ere, udalak aurreko legegintzaldian sortu zuten zorrari buelta ematea lortu dugu. Hainbat proiektu marxan jarri ditugu eta gainera inbertsioak egiteko aukera izango da aurrerantzean ere, zorionak ematea besterik ez da geratzen".

## Alkatearen balorazioa

Plenoa amaituta, Barrio alkateak herak prentsa bildu zuen 2015eko aurrekontuen balorazioa egiteko: "Legegintzaldian lau aurrekontu onartu ditugu eta gobernu egonkor bat lortu dugu gutxiengoan, frogatuztaz utzi negoziatzeko gure ahimena alderdi politiko guztien, salbuespenik gabe, akordio puntualak lortuz".

Gizarte Zerbitzuetan inbertituz, aurreko gobernuak utzitako zorra kitzatzen eta datorren korporazioari 500.000 euro utzi "lan arduratsua" egin dutela uste du Udal gobernuak: "Lan serioa, harrokeria handirik gabekoa egin dugu, gure udalerrian bizi dugun egoerarekin akorde dagoena eta hobekuntza nabarmena eginetz duela lau urte aurkitu genuen Udalaren

egoerarekin alderatuta", azpimarratu zuen Barriok.

Aipagarria da udalaren aurrekontuak behera egin duela nabarmen. 2008an 41 milioi euroko aurrekontua izan zen, iaiz 25 milioi eurokoa eta aurten ia 22 milioi eurokoa. Barrioren hitzetan, "krisi egoeratik diru-sarrera gutxiago izateak eta herriko orubetan etxebizitza gutxiago eralki eta salteak" eragin du egoera hau.

## Oposizio buruaren iritzia

Jesus Zaballos PSEko bozera-maileak orain bidez jakinarazi zuten onartu diren aurrekontuak ez dutela Lasarte-Oria krisitiki ateratzen lagunduko: "Egiteko sartzeko politiketarako %24,3 gutxiago inbertitu du Udalak, dugun langabezia tasa ulatu izanda onartezina da hori, Euskadiko aluenetarikoa daukagu".

PSE-Erean uste Bildu, EAJ eta LOHP alderdiek onartu dituzten aurrekontuekin herriak ez du aurrera egingo: "aurrekontu hau eropunitik eta inolako anbizioz gabekoa diru, ez dute herriaren garapena bultzatzen".

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea

LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitaokoaren erantzukizunik.

## Laguntzailea



## Argitaratzailea:

Txatun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
C-20407557

## Legezko gordailua:

SSS13/93  
ISSN: 1134-0053

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.  
Aleak zenbakio: 7800

## txintxarri

## Eredakzioa:

Maidier Azumendi, Jon Altuna,  
Nerea Ezpejuna

## txintxarri@txintxarri.info

## Publizitatea eta administrazioa:

Aiantza Artola  
publizitatea@txatun.com  
administrazioa@txatun.com

## Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,  
Ane Labako, Iñaki Amati, Asier  
Odrizola, Maidier Seguraola, Jesus  
Artebe, Gorka Alvarez, Piko  
Aizpuru, Edo Galardi

## Informalitateak:

Xabier Amadoz

Pablo Barrio EHBildu-ko alkategaia

# “Partehartzea eta ardura lehentasun”

Herritarren eskubideak eta beharrak ardatz izateko asmoa agertu du EHBilduko alkategaia

**Pablo Barrio alkatea da berriro ere EHBilduko alkategaia. Lau urte Udala kudeatzen egon ostean, Gobernari eustea espero du. Legealdi honetako irakurketa eta arlo ezberdinetan proposamen berriak egiten ditu hurrengo leheretan.**

TXINTXARRI

**Z**eintzuk dira zure ustez Lasarte-Oriak momento honetan dituen beharrak? Beharrak mota askotakoak dira, garrantzitsuak guztiak. Diru beharrik suposatzen ez dutenen artean zintzotasuna, gardentasuna, jendearrekin konplizitate aipatuko nituzke. Politika egiteko modu jakin batzuk asko zikindu dituzte instituzioak eta duintasuna eman behar zaie. Horretan saiatu gara azken urte hauetan Lasarte-Oriari eta hala jarraituko dugu.

Diru dezente behar dute beste batzuk. Langabezia dela, egoera ekonomika dela, eronka handiak ditugu aurrean. Herritar guztiak bizimodu duna ziurtatu behar dugu, jarduerak ekonomikoak babestu eta bultzatu.

**Zein esparrutan eragin behar da gehien zuen ustez?** Orain artean aritu garen bezala, herritarrekin harremana indartzen eta zabaltzen, gardentasunean eta herritarren erabakimenean eragin behar dugu. Eta hori bi lehentasunezko ekitortu behar ditugu: parte-hartzea eta ardura. Ardura kudeaketa zintza, zuzena eta garbia egiteko, iraganean pasatakoak berri errepikatuz ez daitez. Eta parte-hartzailea, azken finean, herritarrek egunerokotasunean ahalduzke.

**Ekonomia, merkataritza sustatu eta langabezia tasari ereraparatu eta zein neurri proposatzen dituzue?**

Urte hauetan frogatu dugunez, arlo sozioekonomikoa lehentasunezkoa izan da guretzat. Tresna autonomo moduan, Sozioekonomia Batzorde espezifikoa eratu eta edukiz bete dugu. Herriko merkataritza eta zerbitzuak herritarren lehenengo aukera izan daitezzen Tratu On Bat marka sortu dugu.

Herrien arteko lankidetzatza protokoloen bidez eskualdean 1.000.000 eurotik gertu kudeatu dira urtean eta lastopu ugari sortu ditu. Orain, forma juridikoa ematea falta zaio bakarrik Carapen Integraleko Agentzia izateko. Ekonomia eredu berri batean sinesten dugu, soziala eta eraldatzailea, kooperazioan eta elkarlanean oinarritua.

**Hirigintzari dagokionean, etxebizitza eta aparkaleku eskaintza herrian nolokoa da egun eta nolokoa beharko luke?**

Hirigintzak herritarren eskubidea izan behar du helburu, ez merkatuarena. Etxebizitza bizitzeko izan behar dira, ez espekulatzeko. Horregatik, gure lehenengo lana higiezin merkatuaren azterketa bat egitea izango da: etxebizitza eskaria, etxebizitza hutsak, eraikitzea prozesak...

Gure aldetik, inbertsioak herritarren beharretan oinarritu ditugu. Sasotako arloaren eraketa da adibide argia. Espaldirik eskalazunari ekin diogu eta martxan dago. Auzotarrek haren artean beti ere, beraien adostasun urbanizazioa eta eman beharke pausok, Tximistarreta parkean egin zen moduan.

Era horretan auzoak biziritze izango da gure helburua. Zumburrun, Zabaleta, Basaundi eta abar. Erdigunean ere eguraldiaz babestu eta bizitza sozialek egokia izango den estalpea proiektatuko dugu.

Aparkalekuei dagokionez, pausok eman dira eta Udalak trafikoa eta aparkalekuei buruz iraketa bat egin du, hementik aurrera, pertzepzio subjektibuz gain, datu errealetan oinarritutako neurriak hartzeko.

**Herrian dauden zerbitzu publikoek dagokienean, zer hobetu/indartu behar da?**

Ezer baino lehen, zerbitzu azpimarratu: egoera ekonomikoa ez da oztipo izan behar herritar guztiak Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak erabili ahal izateko, eta hori bermatzeko hobari eta salbuespen sistema ezarri dugu.

Garbiketa, argiteria, udaltzaingoa, hondakinak, kale, parke, eskola eta espazioen egoera eta abarri helteko, Auzo Kontseiluz proposatzen ditugu. Urtean pare bat alditan dituko dira auzo bakoitzean eta auzotar guztiak aukera izango dute alkateta, udaltzain bakoitza eta zerbitzu etako arduradunarekin beraien kezak, kritikak eta proposamenak konpartitu eta aztertzeko.

Garbiketa Zerbitzuetan kasuan, egungo kontratua hantxuko dugu hainbat hobekuntza



sartuz. Zona eta horma degradatuak biziberritzeko lanketaren jarraituko da eta hainbat espazioetan konun publiko eraikiko ditugu.

**Kultura alorrean, zeintzuk lirateke lanildoak? Euskarak zein leku dauka?**

Kulturak pertsona egiten gaitu. Kultura ez da denbora pasa; kulturak osatu egiten gaitu, baita herri moduan ere. Kultur politikak herritarra kontsumitzaile izateki agente aktibo izatera pasatzeko bilatu behar du.

Kultura arloan, tresnak eta helburuak uztartu behar dira. Herriko eragile eta elkarteek osatutako Koordinazio Mahai bultzatuko dugu tresna moduan. Mahai horrek aukera izango du udal programazioan parte hartu eta erabakiak hartzeko. Truke ekonomikorik gabeko jarduerak kulturak sustatuko ditugu, disziplina kultural ezberdinak, sortzaile amateurak. Aniztasuna aberasgarria dela barneratuta, kulturartekotasunaren alde lanean jarraituko dugu.

Daukagun aberastunaren adierazgarri bereziena izanik, ikasketa eta erabilera indartuko dugu, ostalarri eta merkatarien artean, kirol elkarteetan eta beste esparrutan. Horregatik, iaiz matrikuletan %85 aurretzeko jarritako beka sistema eustiko dugu.

**Eta kirolak?**

Azken hamarkadetan, kirola gutxiengo jardura izateki aisialdi eta osasunaren elementu garrantzitsua izatera pasa da. Horren kontzientziaz izanik, lan handia egin dugu daukagun

baliabide material, ekonomikoa eta pertsonalei ahal den eremimendu handiena ateratzen.

Oinarria jarri dugu lau urte hauetan. 2014ean, parte-hartze bidez, Kirol Plan Estrategikoa egun genuen herriko kirol eta jarduerak fisiko etorkizuna zehaztuz. Datoren urteetan, Kiroldegi proiektu berri bat burutuko dugu herritarren parte-hartzea adostasun bideragarritasun ekonomikoa jasoko duen Plana definituz.

**Zer iruditzen zaizu herriaren parte-hartzea erabakietan eta ekimenetan?**

Parte-hartzea gure identitate seilua bilakatu da lau urte hauetan eta hala izan behar hurrengoan ere. Zerotik abiatu gara. Ezer ez zegoen. Parte-hartze Departamendua sortu dugu urte hauetan eta pauso garrantzitsuak eman dira. Hau hastapena izan da, asko dago ikasteko, hobetzeko, sakontzeko eta egiteko dago, jakina, baina hau da bidea guztiz izan behar duen herria guztiz artean egiteko. Parte-hartzen duen eragile, herri bizia da.

**San Pedro jaiak deszentralizatuak izan behar dute edo Owendok izan behar du gune bakarra?**

San Pedro jaietan emandako aldiketa erabakia izan da, bai antoloketa ereduak eta baita jendearren erantzunean ere. Eredu parte-hartzailea txertatu dugu festetan, eta era horretan herriarek markatzen dituzte ildo nagusiak, ekitaldi mota eta espazioak.

Aurrekoa esanda, ezin da ahaztu San Pedro jaiak herriko jaiak direla eta herri guztietan

festa gune nagusi bat dagoela beti, ez bakarra eta ez eskuliboa, baina bai erreferentziala. Horrek ez du esan nahi auzoak ahaztu behar direnik. Gure ustez, auzoek bere festa proiektu edukitzea bultzatu behar da; horretan udalak badu lana, daudenak indartu eta auzoetatik planteatzen direnak bultzatu, Oriakoekin egin dugun moduan.

**Zeintzuk dira finkatutako lehentasunak eta eronkak?**

Ikuspegi motzarekin, plangintzarik gabe kudeatu da herria urte askotan. Momentuko interesak izan dira nagusi, adreiluaren kultura espekulatiuari lotuak kasu askotan, kontraturatu gabe herria oso txikia dela, biztanleria handikoa eta oso kontzentratua, gure zabalpen eta arnas eremuak eskasak direla, industria arlo eta sektore ekonomikoa desorekatu dituen.

Berez, gure etorkizuna definitu duen Lasarte-Oria 2030 Plan Estrategikoa egitea litzekite herriko nagusia. Gaituzke alderridiki, udalerriko eta inguruko eragile sozioekonomiko, instituzional, kultural eta, oro har, herritarren parte-hartzearekin landu beharreko. Hementik aurrera egin beharreko bidearen oinarri sozioekonomiko, urbanistiko eta kulturalk jarriko dizkion apustu garrantzitsu izango da.

**Alkatetzat izateko zer da egungo zuzen lehenengo gauza?**

Lanari ekitea, noski. Aurreko legegintzaldian frogatu dugun moduan, personalismoak alde batera utzita, talde lana da benetan inportantea, ekipa herriko kokatu eta martxan jartzea lehenengo lana izan behar du. Horiki aurrera, proiektu guztiak dira inportanteak, guztiak ekin behar. Bakoitzak bere temoa izango du, ordea, eta horren arabera joango da gauzapean.

**Nolako herria irudikatzen duzu lau urte barru zure zerrendak gobernatuko balu?**

Herri Bizia dugu, ez leloa, helburua. Eta hala irudikatzen dut herria lau urte barru: herri biziagoa. Eta ez da iudipena bakarrik. Lau urte pasa ditugu udal gobernuan, eta apal-apal esanda baina konbentzimendu osoz ere bai, duela lau urte baino herri biziagoa daukagu orain, herri aktiboagoa, kohesioantagoa, alaiagoa eta parte-hartzaileagoa. Eskarmentu horretatik abiatuta eta guztion lanarekin, ziru nagu urrats gehiago emango ditugula diugu horretan.

# Kanpainak aurrera darrai, azken txanpan

## EHBildu eta Lasarte-Oriak Ahal Du! alderdien ekitaldiak izan dira asteburuan

Gaione ditugu hauteskudeak eta alderdiak azken txanpan sartuta daude. Asteburuan EHBildu eta Ahal Duguren txanda izan da. Koalizio abertzaleak 'herri bizia' aldarrikatu zuen ostiralean eta Ahal Duguk larribat goizean Juntxo Iturria ahaldungaiaren bisita jaso zuen.

TXINTXARRI

**E**H Bildu ekitaldi koloretua egin zuen ostiral iluntzean. Zinta bidez irudikatu zuten Lasarte-Oria "bizi eta alai, ortzadar kolorekoa". Gorriarekin herri langilea irudikatu zuten, berdearekin ekologista eta ingurumenaren aldekoa, urdin-ilunarekin kirolaria, laranja giza eskubideen errespetuaren aldekoa eta librea, horiarekin kultura antzekoa eta euskalduna, moreaz feminista, urdin argiz hezkuntzaren konpromisoa duen herria eta zuriarekin gardena, zintzoa eta parte-hartzailea.

"Halako herria nahi dugu, asko egin baitugu lau urteotan, baina asko dugu oraindik egiteko. Hauteskunde osteko astelehenean berriro sartuko gara bulegora, lasarteoriatar guztien eskubideak eta duintasuna bermatzeko bere jatorria edo egoera ekonomiko kontuan hartu gabe", esan zuen Pablo Barrio hautagaiak.

### Ahal Duguren ekitaldia

Lasarte-Oriako udalean indartsu sartu nahi du Lasarte-Oriak Ahal Du taldeak. Larribat eguerdiko ekitaldian Arkaitz Nayak esan zuen herriak "aukera paregabea" duela "benetako aldaketara" bidean: "Alkate berriaren inbestidura gure hautagaia soilik babestuko dugu, ez dugu inolako pakturik egingo. Herritarrentzat egingo digu politika, udaltea bizilagunen beharretara zuzenduz, gardentasuna adartuz".

Juntxo Iturria Gipuzkoako ahaldungaiak bere aldetik nabarmendu zuen "politika tradizionala" azkenetan dagola eta "herritarren garaia" iritsi dela: "Gu ez gara politikari profesionalak, herritarrak gara zuek bezalaxe eta gauzak aldatzeko gogoia daukagu, horrek batu gaitu eta horretarako egingo dugu lan. Aldaketa iritsi da Gipuzkoari!", esanez amaitu zuen ekitaldia.



EH Bilduren ekitaldian herritarrek euren koloreak eskegi zituzten eta ostean, Barriok hartu zuen hitza dozenaka lagunen aurrean.



Juntxo Iturria ahaldungaiak (esleako beltzetan) eta Arkaitz Naya alkategaiak 'Si se puede!' oihu artean atera zuten talde argazkia.



Plastilinoz panpinak egiten zikindu zituzten eskuak haurrek.



Artilezko irudiak egiteko aukera ere izan zuten.



Landaretxo bat ere etxera eramán zuten askok.



Loidibarren frontoian mugimendua egon zen, baita dendetan ere.

## Udaberriko eskaintzez gozaten

Ostiralean Udaberri festa ospatu zuten Aterpea elkarteak kideek.

Outletak, eskaintza bereziak, plater dastaketa, pintxo bereziak... aukera ugari eskaini zituzten merkataria eta ostalariek egun osoan zehar.

Gainera, egun berezi honetarako, ongi apaindu zituzten merkatariek haien dendak. Alba jantzi dendan esate baterako, kotxe klasiko bat zegoen eta barruan dendako soinekoa zeraman ezkongia.

### Ekintza ugari

Hala ere, jai giroa eta mugimendua arratsaldean somatu zen.

Titiriki-Titaraka eskolako kideek kaleak girotu zituzten trikiki eta panderoekin.

Buenetxea tabernako Country jaian, Howdy taldeaz gozatu ahal izan zen. Arkupe tabernan musikaz girotutako dastaketa izan zen.

Baina ez ziren helduak ekintzez gozatu zuten bakarrik izan.

Etxeo txikiak Loidibarren frontoian puzgarriak izan zituzten. Olmi dendan,

Zumaburu liburudendan eta Ormazabal lorendendan tailerak izan ziren. Haurrek artile eta plastilinarekin lan egin eta etxera baltasmina edo alegria bat eramán ahal izan zuten.

### Opari bila

Honetaz gain, haurrak dendaz dendaz ibili ziren haien marrazkien bila.

Denda ezberdinetan ikastetxeetako 545 haurren marrazkiak zeuden banatuak eta bakoitzak berea aurkitzean oparito bat izan zuten, txutxe poltsa bat.



Egun osoan eutsi bazien ere, arratsaldeko emanaldia euripean egin behar izan zuten... Hori bai, umore onean!



# Batera emanda, a ze eztanda!

## Euskal Herriko 3. Batukada topaketaren bidez perkusioaren bilgune bihurtu da herria asteburuan

**Dinbi Bandak hirugarren urtez dantzan jarri du Lasarte-Oria. Euskal Herri osotik etorritako ZoZongo, Buruntzantzan, Sambamaña, Beriba, Kumbalaye, Bulaka, Zaparrada eta Batukalek hankak gora jarri dituzte bazterrak. Giro ederra izan zen larunbatean, arratsaldean euria izan bazuten ere.**

soinuen eritmorra mugitu zen eta eguraldia lagun, primeran pasatu zuten bederatzitik batuketako kideek.

Behin Okendora iritsita, eta eguraldia kaxkartzen joan ahala, bederatzitik batuketako bakoitzak bost minutuko emanaldia eskaini zuen plazan eta ekitaldi nagusia amaitzeko, topaketako eritmo bateratu jo zuten Dinbi Bandako lagunek ehun bat perkusio-joleekin batera.

Gauen Skakeitan taldearen kontzertuarekin eman zirtzaion amaiera eritimoz betetako egun alaia.

kastaroekin hasi zuten eguna. Rezibatukada, body percussion eta dantza afrikarren eritmoak ezagutzeko aukera izan zuten Manuel Lekuona kultur-etean; Okendon beriz, txalaparta tailerra egin zuten. Bestalde, haurrek Porrotxen bistia jaso eta jolasak egin zituzten Okendoko karpan.

Eguedrian txilibitu ezantzarekin eman zioten hasiera kalez kale ibili zen Do Ta Ke txarangari, poteoa girotuz.

Indarrak berreskuratzeko haragi paella edo begetala izan zituzten aukeran parte-hartzaileek eta behin triapak beteta, Okendo ingurua sanbodoromo bihurtu zuten. Jen-dea bide bazterretan perkusio



Dinbi Banda aisialdi elkarteko kideek Udalarekin batera topaketa antolatzeaz gain, majo gozatu zuten egun osoan zehar.



Euskal Herriko 3. Batukaden Topaketako argazki eta bideoak tintxarri.eus webgunean.

**BITRO E INDUZIOKO PLAKEN ERAKUSKETA HAUNDITU DUGU**

**MAHAI-TRESNERIA OPARI PLAKA BAT EROSTEA**

**MAIATZEAN BAKARRIK**

**Bideo Lagunak** TIEN 21

Etxeokotresna elektrikoak

12 ORDAINDU HILABETETAN INTERESIK GABE

Donostia etorbidea 2 | Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com) | [facebook.com/BideoLagunakTien21](https://facebook.com/BideoLagunakTien21)

## MENDI-LASTERKETAK.

## Mendi-lasterkariak proba entzutetsuenetan

Zegama-Aizkorri, Goizu Trail, Transvulcania eta Rondako 101km-ak egin dituzte herritarrek

Asteburuan Zegama-Aizkorri begira jarrita egon dira begi guztiak. Tadei Pvik eta Azahara Garcia izan dira garaileak Goierriren ospatu den Europako Txapelketan. Bost herritar irten ziren atzokoan, eta lauk amaitu zuten. Ez da azkenaldian lasarteoriatarrek burutu duten proba bakarria izan.

## Jon ALTUNA EGITEGI

Herritarren artean ikusgarria izan zen Ivan Granado izan zen Zegaman, 141. postuan sailkatuta eta 5 ordu eta 10 minutuko denbora eginez. Endika Gartzia lasai hartu zuen lasterketa eta 5:24 egin zuen. Antonio Urruzola debutariak 6:38ko kronoa egin zuen eta Peio Fadriquek 7:03ko tartea hartu zuen lasterketaz gozatzeko. Azkenik, Mikel Izagirre ezin izan zuen lasterketa amaitu eta hanketako bikietako minez Santi Spiritun erretiratu zen tamalaz.

Bestalde, larunbatean, Endika Gartzia bi besok jaso zituen 20 kilometroko Goizuetan Trail proban eta 10 kilometroko lasterketa laburrean Beñat Los Arcos hirugarren izan zen.

## Olazagoitia Rondan

Askoz esfortzuz luzeagoa eginenez, 101 kilometroko proba burutu zuen Javi Olazagoitia herritarrek maiatzaren 9an Rondan, Malagan.

Denera 2.800 mendi-lasterkari abiatu ziren. Horietaik mila ez ziren iritsi eta 1.800 lagunek zeharkatu zuten helmuga 24 orduko mugarenez azpitik, tartean, parte-hartzailasarteoriatarrek.

Olazagoitik 12 ordu eta

20 minutu behar izan zituen Rondako mendizerra inguruetan 101 kilometroko lasterketa amaitzeko eta 74. postuan iritsi zen hegumara:

"Proba honen desnibel positibo metatua 2.800 metrokoa da, printzipioz ez du bereziki gogorra ematen, baina izan genituen 32 eta 37 graduko tenperaturak gertatu ziren badizkiozu... Iparraldeko kirolariok asko sufritu genuen, ez gaudelako batera ohituta halako giroarekin lehiatzera. Momentu txarrak pasa nituen, goragalearekin eta jaten nuen gutzia botatz. Azkenean gorpuzari buelta eman eta lasterketa amaitze-lortu nuen. Oso-oso pozik nago", adierazi zuen Javi Olazagoitia ultra-lasterkariak Andaluziako proba amaituta.

## Letamendi Transvulcanian

Kanariar Uhartetean aritu zen Iñaki Letamendi herritarra, joan den asteburuan.

Hamalau ordu eta 15 minutu behar izan zituen irletako ingurune bolkanikoan 73 kilometroko proba amaitzeko. Denera 1.500 parte-hartzaila izan ziren eta Letamendi 675. postuan sailkatu zen. Luis Alberto Hernando irabazlearengandik zazpi ordira.

Iñaki Letamendik lasterketaren kronika egin digu:



Goian Gartzia Goizu Trailen garaile helmugaratzen. Behean ezk: Olazagoitia Rondan; esk: Letamendi Transvulcanian.

"4.400 metroko desnibel positibo da probak. Ibilbidea bolkanikoa da gehiena, ikusgarria. Fuencaliente itasargitik hasita 2.400 metroko igozeta da berriz itsaso aldera jaisteko. Nire kasuan gogotsu hasi nintzen, baina beroarekin larritasuna pasa nuen batez ere 40 eta 51 kilometroen artean, erretiratzea ere pasa

zizaidana burutik, baina ederki sufriduta 'El Roque de los Muchachos' (Irlaren tokirik altuena) 2.400 metrora iritsi nintzen, ia hamar orduko igoera eginez. Horrek ondo adierazten du zenbat kosta zizaidan igoetzea... Jaitseren gorpuzari buelta emanda, 'txukun' helmugaratzea lortu nuen, 14 ordu eta 15 minutu

goizeko 6:00etan hasi ginetik. Lasterketa gogorra baino polita benetan ibilbidea. Jende asko animatzen, ura botatzen ziguten... Behar genuen burua freskatzeal! Parte-hartzailen % 30 erretiratu egin zen. 50 herrialdeko lagunak ginen, Australia, Argentina, Kolonbia, Alemania... Eta euskaldunak era bai noski!".

## SASKIBALOA.

## Gipuzkoako txapela jubenilentzat

Emakumezkoen saskibaloia egoera onean da Lasarte-Orian. Kadeteka lauko finalera sailkatu ziren, eta jubenilek lauko finala irabazi dute asteburuan, Ordizia 58 eta 43 garaituta.

"Beti aurretik joan gara gutxiagatik eta azken minutuetan lortu dugu partiduko osoko lana errematatzeara", zioen Endika Marrahi prestatzaileak.

Neurketa honekin denboraldia ia bukatutzat eman dute, Gipuzkoako txapela jantzia: "Txapelketaekin ez dugu igoerarik ez bestelako saririk lortu, baina probintziako onenak izatea nahikoa sarri bada guretzat. Iaz sekulako denboraldia egin zuten



kadete mailan, eta aurten, jubeniletan lehen urtea zuten arren, sekulako maila erakutsi dute neskek. Zorionak denei", esan du Marrahi.

Herriko saskibaloia osasuntsu dago, belaualdi onak datoz gainera atzetik eta datorren urtean Ostadarren

saskibaloilorrak lau beharrean bost talde izango ditu, Landaberriko infantilek kadeteetara sailtu egingo baitute.

"Mutilen taldea sortu genuen laz, aurten kadeteetan beste bat... Gogo handiz jarraituko dugu, argi dago", adierazi du Marrahi.

## LABURRAK.

## Lasarte-Oriako II. MTB gau-martxa

Maiatzaren 23an, larunbata, arratsaldeko 19:00etan Buruntzazpi elkartetik aterako dira herriko hainbat txirridulari gau-martxa egitera Plazaola barrera. Basaundiko elkartean txirridar kamioiez eraman eta ekartzeko aukera jarrito da. Izen-ematea don da eta Txoko taberna afaria egiteko aukera dago.

Antolakuntzak jakinarazi du 40 kilometroko ibilbidea izango dela Plazaolako bidean barrera, derrigorrezkoak izango direla kaskoa eta argiak.

## Ostadar Gipuzkoako txapeldun, 3. mailan

Gogoratzen moduko lehen denboraldia egin du Ostadar Cecilia Fruta Denda Kebab Lasarte areto-futbol taldeak. Joan den astean Gipuzkoako 2. mailan jokatzeak xartera la eskuratu ostean, asteburuan Muxarrari 3. mailako finala 4-1 irabazi dio Monseko kirlodegian. Egindako ospatu eta baloratu eta gero, datorren denboraldiari begira jarriko dira laster.



## Agenda

Asteartea 19, Manuel Lekuona Kultur etxea



### Euskal Estatuaren ikuspuntu feminista

Jule Goikoetxea 'Euskal Estatu gintza feminista' hitzaldia eskainiko du. Goikoetxearen hitzetan, 'Politika publikoak egitzeko, diskurtso ofizialak artikulatzerakoan, zer den zer erabakitzerakoan, zer sartuko den merkatuaren logikan eta zer ez, are gehiago, euskal estatu feminista horretan emakumezkoak edo gizonzkoak egongo ote diren, espazio publikoa nola okupatuko dugun, zer punturaino izango den etxea eremu publiko eta pribatua... Gai horiek guztiak ikuspuntu feministatik zehaztean datza'. Irakurle txokoak antolatuko ekintza da.

tel' lana eskainiko dute. Sarrera doakoa.

### Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Maiatzan zehar

Atzegi elkarteak erakusketa osatuko du #elkarion kanpainako selfie-kin. "Elkarion adimen urritasuna duten pertsonen asko dute emateko" kanpainaren barruan, jendeak bidaltzeko argazkiekin egindako bilduma izango da ikusgai.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ekainaren 5 a arte

Brancussio ikasleen margolan eta arte-lanen erakusketa ikusgai.

### Hernani

### Kontzertua

BITERI KULTUR ETXEA

Asteazkena 20, 18:00etan

Hernaniko musika eskolako teklatu ikasleen kontzertua.

## Lasarte-Oria

### Pailazoak

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 23, 16:30ean

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 'Txo Mikmak Txikia' ikuskizuna eskainiko dute. Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolako trikitalari eta panderojoleak, Xumela abesbatza, Literatur Txokoko kideak dantzan eta kantuan izango dira. Saio honetako txartelak saldu dira dagoeneko. Irakurle txokoak antolatuta.

Larunbata 23, 19:00etan

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 'Txo Mikmak Txikia' ikuskizuna eskainiko dute. Sarrerak salgai Lasarte-Oriako

Jalgi, Artizar eta Urruzola mertzerian. Eskualdean, Usurbilgo Bordatxo tabernan, Andoaingo Ernaiza liburutegian, Hernaniko Irigoenea okindegian, Astigarragako Ikatz tabernan eta Añorgako Jolas-etxea tabernan. Prezioa 7 euro. Irakurle txokoak antolatuta.

### 13. Antzerki eta Dantza astea

OKENDO PLAZA

Larunbata 23, 11:30ean

Kukuka dantza eta antzerki eskolako desfile koloretuarekin iragarriko du XIII. Antzerki eta dantza astea. Gainera, Okendo plazan talde gutiekin haien emaldiaren minutu bateko erakusketa

egingo dute. Amaieran, gutziek batera eskolako ereserki dantzatu dute.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena 25, 19:00etan

Kukuka dantza eta antzerki eskolako DBH1 mailako gazteek 'Artisten herria' eta 'Gu ere artistak gara' lanak eskainiko dituzte. Sarrera doakoa.

Asteazkena 27, 19:00etan

Kukuka dantza eta antzerki eskolako LH5 mailako gazteek 'Artisten herria' eta 'Gu ere artistak gara' lanak eskainiko dituzte. Sarrera doakoa.

Osteguna 28, 19:00etan

Kukuka dantza eta antzerki eskolako DBH3 mailako gazteek 'Aupa Etxebes-

## Herritarren txokoa

### Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren ome-nezko meza berezia ospatuko da Maria Auxiliadoraren egunean bertan, maiatzaren 24ean, igande, eguerdiko 12:30ean. Osteen, moka-da bat jateko aukera izango da.

### Oriatarren bazkaria

Karmengo Amaren egunean, uztailaren 16an, ohiri den bezala Oriatarren bazkaria antolatuta dute El Jardin jate-txean.

Aurten Karmengo Amaren kapera-ren 75. urteurreina ospatuko dute eta On Ramon Uribeberria apaizari omenaldi txikia egingo zaio urte hauetan egindako zerbitzuegaitik.

Bazkari hau pertsona gutzietatik irekia dago. Bazkariak gozatu nahi duten herritarrek jate-txean bertan eman behar dute izena. Menua 30 euro dira

eta haurrentzako bi menu daude, bata 8 eurokoa eta bestea 12 eurokoa.

### Torredembarra irteera

Lasarte-Oriako lagun talde batek Kataluniako Torredembarra herrira joateko autobusa antolatu du.

Topaketa kultural honetan parte hartzeko jendea behar dute. Bereziki Oriako Sorgin Dantza dantzatu dute herritarren bila ari dira.

Maiatzaren 29an izango da irteera eta 31an itzuliko dira. Autobusaren prezioa 40 eurokoa da. Hilaren 30eko zikro janarena berriz, 20 euro.

Izena emateko zerrendak Artizar eta Ilargi tabernetan daude. Internetez, [lot.topaketa@gmail.com](mailto:lot.topaketa@gmail.com) helbidera idatzi dezakete interesatuek.

## Sarean


### Firefox OS sistemak euskarazko zuzentzailea du orain

Maiatzaren 8tik, Firefox OS daukaten telefono mugikorrek hau eguneratu eta euskarazko zuzentzailea izan dezakete mugikorrean.

Firefox OS smartphoneentzako sistema eragile bat da, Googleen Android edo Apple- en iOS-en gisakoa. Baina hau software librekoa da eta horrela izaki, nahi duen pertsonak ekarpenak egin ditzake sistema horretan.

Duela bi urte, Firefox OS sistema euskaratu zuten Librezaile elkarteek eta orain, euskarazko zuzentzaile txertatu diote Elhuyar I+G taldeko lagunen laguntzaz.

Androiden, gailu batzuetan soilik zegoen sistemaren interfazea euskaraz. Zuzentzaileei dagokienez, Xuxen aplikazioa dago, Elhuyarek egina, baina hau ez dago sistemaren integratuta. Beraz, Firefox OS software librea duten gailuek euskarazko zuzentzaile integratuta duten lehenak izango dira.



### Zuen oharrak jarri, keak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)

# Literatura eta bertsolaritza eskutik

Udaberriko bertso saioa antolatu du Ttakunek maiatzaren 29an 22:00etan Manuel Lekuonan

“Doinuak Lumaz” da Ttakunek aurten antolatu duen Udaberriko bertso saioaren izena. Emankizuna maiatzaren 29an izango da 22:00etan Manuel Lekuonan eta sarrera 5,50 eurotan eskuratu daiteke kultur-etxean. Hamar sarrerako bonoa ere eros daiteke 45 eurotan. Bertsoan Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Ane Labaka arituko dira.

Literatura eta bertsolaritza uztartuko ditu saio bereziak. Herriko hainbat idazlek testuak prestatu eta Manuel Lekuonan errezitatuko dituzte. Testu hauek izango dira hain zuzen, Ane Labaka, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio bertsolarientzat gaiak iradokiko dituztenak.

Udaberriko bertso saioak herriko hainbat eragile bildu nahi ditu urtero bertsoaren inguruan. Iaz “Txio Txio Txorrotzio” saioan, musika izan zen ardatz eta aurrekoan, “Hango eta hemengo” saio arrakastuan, aniztasuna. Oraingoan, herriko idazleei eman nahi izan zaie protagonismoa.

Idatzietako batzuk espresuki saiorako idatzi dituzte idazleek eta beste batzuk, dagoeneko argitaratutakoak dira. Guztira 11 testu osatuko dute bertso saioa eta egungo idazleen artean, garai batekoak gogora ekarri nahi izan dira. Hala nola, Pedro Artetxe “Urdaneta” eta Juan Garmendia Cortadi “Zeleta”.

Bertsolariaren kasuan, honen bilobak Miren Artetxek errezitatuko du eta Juan Garmendia Cortadi “Zeleta”-ren “Aurtzaroko oroipenak” 1958. urteko testua oholzaratuko da Cesar Marcosen marrazkiekin.

Horiekien batera, Harkaitz Cano, Ixiar Rozas, Martin Anso, Iñaki Pexarroman eta idazle ezagunen artean, Beñat Urruzola gaztearen idatzia ere egongo da. Herritarrak hainbat literatura lehiaketa irabazi ditu.

Berriki Cafe Bar Bilbaoren antzerki laburreko gidoi lehiaketa irabazi duen Idoina Garzes herritararen testu bat ere izango da. Mari Jose Olaizregi idazlea eta egun Etxepare institutuan euskararen sustapenerako zuzendariak, prestatutakoan bere haurtzaroko Lasarte gogora ekarriko du.

Aitzol Iriondo presoak azken errezitaldirako idatzitakoa entzun ahal izango da. Honek gainera, Txalaparta argitaletxearekin “Bobby Sands, martxa baten lehen notak” liburua itzuli berri du.

Azkenik, Pablo Barrio alkateak bere testu bat eskainiko du. Alkate lanetan azken lau urtetan jardun den arren, antzezlanak idazteagatik egin zen ezagun hainbat lehiaketatan saritua izan ostean.

Idazle guztiak ezin izango dute kultur-etxean egon eta grabatuta utzi dute euren idatzien irakurketa. Hala ere, antolatzaileek saio borobila espero dutela aipatu dute.



Herriko idazleen testuak izango dira Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Ane Labaka bertsolarientzat gaiak.

## Musikak girota

Errezitaldi guztiak musika izango dute lagun eta hitzei doinuua jartzen lagunduko dute Amaia Atxega, Amaia Dorronsoro eta Lierni Arozana piano joleak, Bixente Beltranek klarinetarekin eta Tomax Lizardik gitarrarekin. Aipatu bezala, bertsolarientzat idazleentzako jasotakoak izango dira gaiak.

Hala ere, gai jartzaile lana egingo du Uxue Loinazek. Bertsolariek ez dute lan erraza izango, baina ikusleen gustukoa izango da saioa. Antolatzaileek herritarrak animatzen dituzte honetara gerturatzena.



Iazko bertso saioan Beñat Gaztelumendi, Ane Labaka eta Maialen Lujanbio aritu ziren.

LASARTEORIATARROK

# garaile!

con ganamos todas

## Herritarrek hitza

### Tú tienes la palabra

**Pablo Barrio**  
Lasarte-Oñako Alkategia

**Ander Rodríguez**  
Gizarte Gaietako Diputatu

Tximistarreta parkean **19:00**

Maiatzak **18** Mayo

Astelehena **Lunes**

Herri Bizia

Un pueblo vivo